

Daddy cool



GAZTE MAKETA LEHIAKETAREN FINALA

Maiatzaren 27an jokatu zen Bilboko Kafe Antzokian.

Anerguria, Pet Fennec eta Dekot izan ziren hiru finalistak eta Dekotek irabazi zuen.

GazteBizHitza saria irabazi zuen Katez taldeak ere bere kantua jo zuen, hala nola entzuleen artean boto gehien jaso zituen bigarren taldeak, Eraulek.



Fermin Etxegoien

@FEtxegoien

Saria potoloa zen, 5.000 eurokoa, eta lehiakide biren artean genituen zalan-zak... Bataren maketa entzutean, neuri egin zitzaidan Belakoren oso kloniko, klonikoegi. Gainera, ingelesez abesten dute eta herri berekoak dira. Baina gero, zuzenean, sekulako maila eta nortasuna erakutsi zituzten, maketan zegoenetik askoz haratago ailegatuta.

Epaimahaikideon deliberazioak sekretuak izaten dira, noski. Tira, honezkerok txibatu dizuet lehen kontu irregularretariko bat: Gaztea Maketa lehiaketan euskaraz abestea meritutzat hartu izan dela.

Ez dut errieta handirik espero zuzendarirengandik, ondotox dakielako bereziki disfrutatzen dudala Gaztea, oro har, defendatzen, eta egin egingo nukeela gurean hain ohikoak izaten diren kultur ez transgenikoaren aldeko edozein biltzarretan.

Eta bestea –ez dezagun haria gal– Bilbo aldeko rapera jenial bat izan zen. Euskaraz oso ondo, espainolez hobeto, eta ingelesez ere, itxuraz, arazorik gabe

aritu zena kantutan, orain ragga alde-ra, orain diva soul, orain jostarin, kasu guztietan dantzan ezin askeago bezain natural eginez.

Uau, ataka gaitzean ginen epaimahaikideok...

Hona hemen, desestimatu genituen gainerako hiru finalistak:

Donostiatik etorritako hirukote bat, maketan preziosista sentitu genuena –Allah Lahs?– baina zuzenean askoz soilago aritu zena, halako post-grunge intenporal bat beste barik eginez, ingelesez.

Donostiatik etorritako bakarlarri bandedun bat, txeloak eta pianoa barne, nagusiki ere ingelesez abesten duena, eklektizismo *seventies* baten barruan, folk-rocketik orduko soul zurira eta alderantziz, demagun Rufus Wainwright bezalako eremuko dunak.

(Bide batez, bururatu zitzaidan hirurogeitarreko hamarkada izan zela lehen hamarkada eklektikoa rock-musikan, demagun Roxy Music edo Talking Heads).

Hiru: arnagunerik ez-transgenikoenetatik talde bat eta bakarra ailegatu zitzaiagun, entzuleen saria jaso zuena ere, eta hasi eta buka euskaraz abesten zuen, baina guri, estilistikoki, alde handiz desfasatuena iruditu zitzaiagun, errail bakarreko metal eta hardcore estiloen arteko intsistentziagatik.

Arnasguneetan gertatzen ari dena eta gune transgenikoetan gertatzen ari dena, ia-ia antagoniko dira estetikioki.

Amurrion, Lorea Agirrek esan zuen nahiago duela semeak La Basu entzutea, Xabier Lete nor izan zen –eta nor den– jakitea baino. Tira, gutxi gorabehera esan zuen arestikoa, Aiaraldean antolatutako Jalgi jardunaldietan. Bat nator guttiz. Azkenean, gure epaia lehen taldearen aldekoa izan zen, baina zuzendaria sujeritu zidan neska rapera oso kontutan izango dutela aurrerantzean. Gurasoon arteko konplota beraz, euskal hip-hop gure seme-alaben artean zabalduko bada. ■